



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, EUROPAKO ZENBAIT FUNTSEN ZERGA TRATAMENDUA, ETA BERRIKUNTZARI, JARDUERA EKONOMIKOAREN FINANTZAKETARI ETA EKOIZPEN KAPITALIZAZIOARI BULTZADA EMATEKO ZERGA NEURRIAK GARATZEN DITUEN FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA.

Xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, arautzaileak zein arautzaile ez direnak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariak duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko. Arau esparrua: Europako zenbait funtsen zerga tratamendua, eta berrikuntzari, jarduera ekonomikoaren finantzaketari eta ekoizpen kapitalizazioari bultzada emateko zerga neurriak.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, uztailearen 4(e)ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK	Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Araua, Arabako zerga sistemako zenbait arau eta tributu aldatzen dituena. Zehazki, Foru Arau horren III. Titulua, berrikuntzari, jarduera ekonomikoaren finantzaketari eta ekoizpen kapitalizazioari bultzada emateko Europako zenbait funtsen zerga tratamendua arautzen dituena.
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Berrikuntza, jarduera ekonomikoa eta ekoizpen kapitalizazioa sustatzea.
HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Ezinbestekoa da berrikuntzari, jarduera ekonomikoaren finantzaketari eta ekoizpen kapitalizazioari bultzada emateko Europako Funtsen izaera aitortzeko prozedura eta betekizunak zehaztea, eta dagozkion informazio betebeharrak zehaztea.
HELBURUAK	Europako Funtsen zerga tratamenduaren araubidea garatzea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	Badaude bestelako aukera arautzaile batzuk, baina hau da egokiena martxoaren 7ko Foru Arauan zehaztutakoari jarraituz, eta beste lurralde historikoekin beharrezko harmonizazioa lortzeko.